
ABEGI

ARRETA ZERBITZUA

ABEGI gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsoneri zuzendutako zerbitzu publikoa da. Zerbitzua egunez zein gauez eskaintzen da.

Arreta-zerbitzua Peñascal Kooperatibak kudeatzen du, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren koordinazio, gainbegiratze eta zuzendaritzapean.

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

Premia zehatzei erantzuteko arreta edo laguntza da; eguna bertan igarotzeko aukera ematen da, elikadura eta higieneari lotutako oinarrizko beharrei erantzunez (bazkariak, garbiketa pertsonala, arropa-garbiketa). Exijentzia gutxiko zerbitzua da.

15 leku hiru modalitatetan:

Puntualak

- Gehienez 5 egun.
- Ez da denborarik itxaron behar eskaera egin eta arreta jaso bitartean.
- Aldeko iritzi teknikoa behar da.

Iraunkorrak

- Epea luzeagorako
- Zerbitzuko lantaldeak eta gizarte-zerbitzuek emandako aldeko iritzi teknikoa eta onespena behar da.

Bereziak

- Salbuespenezkoak
- Jangela, dutxa edo ikuztegi-zerbitzuak
- Behar hori egiaztatuta, zerbitzuko lan-taldeen eta gizarte zerbitzuen onespena behar da.

Zerbitzuak:

- Beharren hasierako balorazioa
- Jarraipen balorazioa
- Informazioa
- Bitartekaritza
- Eskuhartze psikosoziala eta gizarte-
hezkuntza esku-hartzea
- Elikadura-janariak
- Garbiketa pertsonala
- Ikuztegia
- Kontsigna
- Larrialdietarako jantziak

Lan-taldeak eskatzaile bakoitzari dagozkion lan-helburuen arabera definituko du arreta. Astero aztertu eta neurtuko da zerbitzuan jarraitzeko beharra.

Ordutegia:

Astehenetik ostiralera (jaiegunak izan ezik)

- **Sarrera: 09:30.**
- **Gosaria: 09:30**
- **Bazkaria: 13:30**
- **Irteera: 15:30**

GAUEKO ARRETA ZERBITZUA

Gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako baliabidea da pasadizozkoak direnei edo etxegabe-egoeran daudenei gaua bertan igarotzeko eta oinarrizko elikadura eta garbiketarako premiak betetzeko aukera ematen diena berehalako esku-hartzearen bitartez.

8 plaza orokor

(+3 plaza hotzaren programa aktibatutakoan)

Arruntak

- Egonaldi laburra: gehienez 7 gau.
- Gutxienez hiru hilabete igaro behar dira zerbitzuaren erabilera batetik bestera
- Lan-taldearen aldeko iritzia teknikoa behar da.

Hotzaren Programa

- Euskalmetek abisu horia aktibatzen duenean hotzarengatik, edo 5° baino baxuagoko tenperatura aurreikusitakoan.
- 3 leku gehiago, eta egonaldi arruntak luzatzeko aukerarekin, baldin eta tokirik balego
- Lan-taldearen aldeko iritzia teknikoa behar da.

Bereziak

- 30 gau arte luzatzeko aukera, hori justifikatzeko arrazoiak baleude, gizarteratze prozesurekin edo osasun arazoekin zerikusia dutenak.
- Zerbitzuaren lan-talderen eta gizarte zerbitzuen onespena behar dute.

**Salbuespenak:*

Zaurgarriak

Emakume bakarrak edo

gurpil-aulkidunek ez dute logela beste batzuekin elkarbanatuko, beraiek kontrakoa eskatzen ez badute behintzat. Kasu hauetan lan-taldeak baloratuko du gela horretatik kendu beharreko plaza beste gune batera eraman daitekeen, eta hori ezinezkoa denean, plaza bat gutxiago eskainiko da.

Hotzaren Programa

Programa hau martxan dagoen bitartean 3 leku gehiago eskainiko dira, gehienez 11 toki egongo direlarik.

Zerbitzuak:

- Informazioa
- Beharren hasierako balorazioa
- Jarraipen balorazioa
- Eskuhartze psikosoziala eta gizarte-hezkuntza eskuhartzea
- Gaualdia
- Elikadura
- Garbiketa pertsonala
- Ikuztegia (garbigailua)
- Larrialdietarako jantziak

Ordutegia:

Astelehenetik igandera

- **Sarrera:**
19:30-20:30 (ordutegi barruan heltzen ez denak tokia galduko luke).
- **Argia:**
22:00ean logeletako argia itzaliko da.
- **Otorduak:**
afaria **20:30**etan eta gosaria **07:30**etan.
- **Irteera:**
09:00ak baino lehen.

ERREGISTROA

ETA IZEN-EMATEA

Ordutegia:

- **10:00etatik 10:30era astelehenetik ostiralera (jaiegunak izan ezik).**
- **19:00etatik 19:30era astelehenetik igandera.**

*Eguneko Arreta Zerbitzua zein Gaueko Arreta Zerbitzua itxita egongo dira eta, ez dute zerbitzurik emango inauterien asteko ospakizunak irauten duten bitartean, hau da, ostegun gizenetik errautsezko asteazkena arte.

- Zerbitzua erabiltzeko eskaera onartzeko orduan, eguneko arreta eta gaueko arreta zerbitzuak modu independientean baloratuko dira, eta ahal den neurrian behintzat, bi zerbitzuetako baterako sarbidea saiatuko da. Horrela, eskatzaile guztiek oinarrizko arreta minimo bat jasotzea bermatu nahi da.
- Eskatzaile kopuruak ahalbidetzen duenean, pertsonak eguneko eta gaueko arreta zerbitzuak (biak) eskatu ahal izango ditu, betiere bere nahia hori bada, eta lan-taldearen iritzi teknikoa aldekoa denean.

Onartze prozedura

- Plaza-esleipena iritsiera ordenaren arabera eta dagoen lekuaren arabera egingo dira.
- Genero, arraza, erlijio, sexu-orientazio edota beste ezaugarri batzuegatik ezberdintasunik ez da egingo.
- Onarpen-prozesuan egiazko informazioa ematea derrigorrezkoa da.

Sarrera baldintzak

- Jatorrizko identifikazio dokumentua aurkeztea beharrezkoa da (N.A.N., A.I.Z., Pasaportea, edota jatorriko herrialdeko beste agiriak). Dokumentuan agertzen dena pertsona eskatzailea bera dela frogatu beharko da.
- Azken egonalditik hurrengora gutxienez hiru hilabete igaro behar dira (salbuespenak: hotzaren programa aktibatuta egotea eta plazak libre egotea).
- Ez da onartuko bere historialean kanporaketa iraunkorra duen pertsonarik.

Irteerak

- Zerbitzuan utzitako eskuohial, maindire, almohada, manta eta gainerako artikulua guztiak itzuli beharko dira.
- Norbaitek bere borondatez zerbitzugunea uzten badu, plaza galduko du, eta beraz, hiru hilabete pasa arte zerbitzura bueltatzeko aukera ere bai.
- Arautegia hausten duena berehala kanporatuko da zerbitzutik, eta beharrezkoa izanez gero, polizia-agintarien laguntza eskatuko da.

ARAUBIDEA

Erabiltzaile orok ezagutu, errespetatu eta bete beharko ditu 2022ko abuztuaren 11an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu Eguneko eta Gaueko Arreta Zentroen arautegia, eta zerbitzuaren barne-araubidea. Zerbitzuan lehenengo aldiz sartzen diren pertsonai, bereziki, araubide eta prozedura pertsonal hauei buruzko orientazioa emango zaie.

Bizikidetzaren errazteko akordioak:

- Zerbitzuko erabiltzaileak izango dira: zerbitzuaren plazak esleitutako pertsonak, langileak eta bolondresak.
- Zerbitzuaren arreta jasotzen duten erabiltzaileek beren norbanako eskuhartze planean adostutako helburuak lortzeko elkarlanerako konpromisoa eta nahia adierazi beharko dute.
- Erabiltzaileak amankomunak diren guneak eta bere logela erabili ahal izango ditu, baina debekatuta dago besteen logeletara sartzea.
- Pertsona bakoitzak bere kontsigna izango du aterpetxean.
- Baliozko objektuak logelan ez edukitzea gomendatzen da. Zerbitzuak ez ditu bere gain hartuko lapurtuta edo hondatuta suertatu diren objektuen ardura. Norberak zaindu beharko ditu aterpetxera eraman dituen artikulu pertsonalak.
- Gaueko Arreta Zerbitzuan, afal ondoren, 10 minutuko tarte emango zaio erabiltzaileari kanpoan ertzea nahiko balu, betiere aterpetxearen ate ondoan.

- Erabiltzaileek errespetuz jokatuko dute aterpetxeko langile eta bolondresekin, bizikidetzan parte hartuko dute eta zerbitzuari bere ekarpenak egingo dizkiote.
- Zerbitzuko langile eta bolondres guztiek, berdin-berdin, errespetu osoz jokatuko dute zerbitzuan dauden pertsona erabiltzaileekin.

Higienea eta garbiketa

- Higiene pertsonala zainduko da, dutxak eta jantzi aldaketak maiztasunez eginez.
- Logelak eta gune pertsonalak, garbi eta txukun mantenduko dira.
- Erabiltzaileek, komuna eta egongela bezalako gune komunak modu arduratsuan erabili eta garbi mantenduko dituzte.
- Hondakinak zakarrontzi eta birziklapen ontzietan jaurtiko dira.
- Debekatuta dago janaria logeletan sartzea.

Arau-hausteak

Zigortuko diren jarrera eta ekintzak hauek dira:

- Gainontzekoen segurtasuna edota erosotasuna kalte-tuko duen edozein jokabide.
- Langile, bolondres eta gainontzeko erabiltzaileekiko errespetu faltak.
- Altzari edo instalazioak hondatu edo kaltetzea.
- Jarduera ilegalak zerbitzu barruan zein inguruetan.
- Alkohola edota sustantzia ilegalen kontsumoa, edukitza edo banaketa zerbitzu barruan zein inguruetan.
- Baimenik gabe gune hauetan sartzea: sukaldea, bulegoa, ikuztegia eta biltegia.

- Genero, arraza, erlijio, sexu-orientazio edo jatorri etnikoan oinarritutako diskriminazioa, generoan oinarritutako jazarpena eta indarkeria.
- Tabako edo beste produktu batzuen kontsumoa zerbitzu barruan.
- Zerbitzu barruan argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea.
- Segurtasun gailuak, hau da, segurtasun kamerak manipulatzeko.
- Besteen logeletan sartzea.
- Zerbitzuaren araubidea haustea edo ez errespetatzea.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

Zerbitzuko lan-taldeak erabakiko du arau-haustearen larritasun maila, beste pertsonengan edo zerbitzuaren altzari eta instalazioetan eragindako kaltearen larritasunaren arabera. Beti ere, beste pertsonen segurtasuna edo ongizate fisiko zein psikologikoaren kontrako arau-hausteak oso larritzat joko dira.

Zigorak eta diziplina-prozedura:

- Arau-hauste arinen kasuan ohartarazpena egingo da.
- Bigarren ohartarazpena egitean, erabiltzailea kanporatuko da.
- Lehenengo ohartarazpen larria edo oso larriarekin, erabiltzailea kanporatua izango da.
- Hiru hilabeteko kanporaketa zigorra ezarriko zaio ohartarazpen arina birritan jaso duenari.
- Urte beteko kanporaketa zigorra ezarriko zaio ohartarazpen larria jaso duenari.
- Betirako kanporaketa zigorra ezarriko zaio ohartarazpen oso larria jaso duenari.